


Euskal AEko ikastetxe publikoen irakaskuntza-gastua % 9,6 gehitu zen 2012 eta 2015 urteen artean

Ikasle bakoitzeko gastua 5.400 eurokoa izan zen 2015ean, eta 107.000 eurokoa unitateko

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko ikastetxe publikoen irakaskuntza-gastua 1.707 milioi eurokoa izan zen 2015ean, hau da, 2012. urtearen aldean % 9,6 gehitu zen gastu hori. Gastu osoa, jarduera eta zerbitzu osagarriengatikoa gastuak eta kapital-gastuak ere biltzen dituenak, 1.946 milioi eurokoa izan zen.

Ikastetxe publikoen gastu gehiena (% 95) jarduera arruntetara bideratu zen eta gainerakoa (% 5) inbertsioetara. Bestalde, gastu arrunteko 1.847 milioi euroen % 92,4 zuzenean irakaskuntzarako izan zen, % 0,3 jarduera osagarrietarako eta % 7,9 zerbitzu osagarrietarako (jantokia eta eskola-garraioa batez ere). Irakaskuntzaren barruan, kapitulu garrantzitsuena langileen gastuena izan zen, kontzeptuaren % 89.

1. grafikoa. Gastu osoaren banaketa, ikastetxe motaren arabera (%)



Iturria: Eustat. Irakaskuntza publikoaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika

Irakaskuntza mota kontuan hartuta, unibertsitate aurreko mailetakoko zentroek gastu osoaren % 74 izan zuten, unibertsitateak % 22 izan zuten eta irakaskuntza artistikoko zentroek gainerako % 4a.

Ikastetxe publikoetako **eskola-unitate bakoitzeko irakaskuntza gastuak** 87.310 eurokoak izan ziren Haur Hezkuntzan, eta Lehen Hezkuntzan 90.293 eurokoak. Bigarren mailako irakaskuntzan DBHk 124.144 euroko gastua izan zuten, Batxilergoko lerroek 211.394 eurokoa eta erdi mailako eta goi mailako Lanbide Heziketak 188.393 eta 147.071 eurokoa, hurrenez hurren.

Ikasle bakoitzeko irakaskuntza-gastua 5.400 eurokoa izan zen Haur Hezkuntzan, eta Lehen Hezkuntzan 5.473 eurokoa. Erdi mailako irakaskuntzetan, DBHn 7.245 euro, Batxilergoan 8.039 euro eta erdi mailako eta goi mailako Lanbide Heziketan 10.318 eta 7.285 eurokoa izan zen, hurrenez hurren. Irakaskuntza artistikoetan, Hizkuntzak, Musika, Dantza eta Arte eta Lanbideak barne hartuta, gastu horiek 1.321 eurokoak izan ziren ikasle bakoitzeko. Azkenik, Unibertsitatean ikasle bakoitzeko gastua 7.591 eurokoa izan zen.

2015eko Irakaskuntza-gastuak, 2012 urtearekin alderatuta, % 11,1 hazi ziren unitateko, eta % 6,5 ikasleko.

Ikastetxe publikoen sarrerak 2015ean, guztira, 1.948 milioi eurokoak izan ziren: sarrera arrunta % 96 eta kapitalaren sarrera %4. Sarrera arruntaren osagai nagusiak diru-laguntza publikoak izan ziren, guztizkoaren % 91,8. Iturri pribatuak sarrera arruntaren % 7,4 ekarri zuten, batez ere irakaskuntzako kuoten bidez (% 3) eta jarduera eta zerbitzu osagarrien bidez (% 4,1).

1. taula: Irakaskuntza Publikoaren aldagai nagusiak

	2005	2012	2015	Aldakuntza 2015/2012
Guztizko gastua (milioi €)	1.482	1.854	1.946	5,0
Irakaskuntza-gastua (milioi €)	1.261	1.558	1.707	9,6
Ikasleko irakaskuntza-gastua (€)	4.539	5.109	5.443	6,5
Gelako irakaskuntza-gastua (€)(1)	88.479	96.181	106.833	11,1

(1) Adierazle hori unibertsitate aurreko mailaiei dagokie

Iturria: Eustat. Irakaskuntza publikoaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62